

## 4GUNE + PARKE PROGRAMA

### EUSKADIKO PARKE ENPRESEN-ERRONKEN DEIALDIA

Plataforman sartzeko sakatu [hemen](#)

**4gune** - Euskadiko Ingeniaritza, Zientzia eta Teknolariako Prestakuntza Klusterrak eta **Parke** - Euskadiko Parke Teknologikoak unibertsitateen eta enpresen arteko lankidetzeta-programa berri bat aurkeztu dute, industriak Euskadin dituen erronkei aurre egiteko.

4gune + Parke Programaren helburuen artean talentua erakartzea eta Enpresa eta Unibertsitatearen arteko ezagutza transferitzea daude.

Programaren lehen fasean, Parkeko campusetako enpresak gonbidatzen dira erantzun edo irtenbide bat bilatzen duten erronkak aurkeztera.

Programaren bigarren fasean, 4gune klusterra osatzen duten fakultateak eta eskolak gonbidatuko dira ezarritako erronkei erantzuteko proposamenak aurkeztera, beren gaitasun zientifiko eta teknologikoetatik abiatuta.

#### ZER DA erronka

Enpresak daukan beharra da, 4gune klusterra osatzen duten fakultate eta eskoletan dauden gaitasun zientifiko eta teknologikoak behar dituen soluzio bat aurkitzeko.



VITORIA-GASTEIZKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE VITORIA-GASTEIZ



BILBOKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE BILBAO



GIPUZKOAKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE GIPUZKOA



ZIENTZIA  
ETA TEKNOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIA  
Y TECNOLOGIA



KIMIKA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE QUÍMICA



FARMAZIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE FARMACIA



INFORMATIKA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE INFORMÁTICA



## Programaren funtzionamendua

2024ko uztailaren 5era arte enpresek aurkeztutako erronkak jaso ondoren, erronka horri erantzuteko bazkide akademiko egokienak bilatuko dira. Orduan, enpresa eta fakultatearen arteko elkarrizketa prozesua hasiko da, Parke eta 4guneko langileek lagunduta.

4gune klusterreko unibertsitate-zentroek beren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte enpresek ezarritako erronkei erantzuteko, 2024ko urriaren 7ra arte.

Enpresak unibertsitateak erronkari emandako erantzuna baliozkotu beharko du. Une horretatik aurrera, "enpresa-erronka + unibertsitate-proposamena" lankidetzaproiektu bihurtuko dira. Proiektu horiek lankidetzan garatu beharreko Gradu amaierako lana (GAL), Master amaierako lana (MAL) edo irakasgaia dira, eta ikasleak irakaslearen eta enpresako tutorearen laguntza eta tutoretza aktiboa jasoko dute.

## Proiektuaren garapena

Proiektua 2024/2025 ikasturtean hasi eta garatuko da.

Iraupena enpresaren eta unibertsitate-zentroaren artean adostutakoaren eta hitzartutako ordu-dedikazioaren arabera izango da. Dedikazio hori enpresaren eta unibertsitate-zentroaren artean negoziatuko da, ikasleak bere zentroarekin alde aurretik hartutako konpromisoak errespetatuz eta lehenetsiz.

Ordutegia ez da asteko 20 ordutik gorakoa izango. Ordu horiek lantokian eta/edo enpresan egin ahal izango dira, bi alderdien arteko akordioaren arabera.

Proiektuaren emaitzen konfidentzialtasuna eta jabetza, besteak beste, bazkide akademikoaren eta enpresa-bazkidearen arteko adostasunaren mende geratuko dira beti.

## Finantzazioa

Programak 10 Enpresa+Unibertsitate proiektu finantzatuko ditu guztira.

Proiektuak, guztira, 3,000 eurokoak izango dira.

Parkek eta 4gunek gehienez 2,000 euroekin lagunduko dute, eta gainerakoa erronkaren enpresa liderrak jarriko du. Proiektua 3,000 eurotik gorakoa bada, zenbateko horren ordainketa gehigarria enpresak eta unibertsitate-zentroak adostuko dute.

Finantzatutako zenbatekoak unibertsitate-zentroak justifikatuko ditu, hezkuntza-lankidetzako hitzarmena barne.

## Partehartzea

Enpresen eta fakultateen ordezkariak plataforman erregistratu behar dira: <https://gunedigital.eus>

Enpresa-erronken aurkezpena: Beren erronkak aurkeztu nahi dituzten Parkeko enpresek 2024ko uztailaren 5era arte egin ahal izango dute, [atal honetan](#) adierazitako urratsak jarraituz.

Unibertsitate-proposamenak aurkeztea: Ezarritako erronkei irtenbidea emateko proposamen bat aurkeztu nahi duten fakultateek 2024ko uztailaren 6tik 2024ko urriaren 7ra arte egin ahal izango dute, "Parte hartu" eta "Deialdiak" atalean aukeraturiko erronkan sartuz. Erronkan sartzean, modu asinkronoan prestatu ahal izango dute proposamena, eskuineko menuko "Parte hartu" aukeran klik eginez.